

IRAK

Kristauak paradisu bila dabilta

Indarkeria sektarioaren gaitz endemikoaren menpe, Irakeko kristauak eskualde autonomoa aldarrikatzen dute egun. Milurteko komunitate honek bizirauteko aukera bakarra litzateke.

Testua eta argazkiak:

| KARLOS ZURUTUZA |



LUIS SHABIK nostalgiaz gogoratzen ditu Erroman bititako bederatzi urteak. Han nobiziatua egin ondoren, 1969an itzuli zen Irakera, “Europar zehar egindako bidaia zoragarri batean”. Shabi Bagdadeko artzapezpiku kaldearra dugu. Elkarrizketarako Irakeko hiriburuaren ekialdean bildu gara, Rosarioko Santa Maria elizako bere bulegoan, soto batean. Tenplu xumea da, hormigoizko murruez babestua, alanbre ziztadunez eta soldaduz inguratua. “Herri bakezale

**Uniformedunak
Bashika hirian,
kristauak
eurentzat
aldarrikatutako
eskualdean.**

eta langilea izan da geurea beti. Gainera, hainbat idazle, poeta eta filosofoen ekarpenen esker, entzutea eta ospea lortu genituen kultura irakiarrean. Tamalez, 2003. urteaz geroztik, estremistak irudi hori aldatzeko ahaleginetan ari dira; etorri berriak garaia diote, Mendebaldeko ordezkariak Ekialde Hurbilean”. Bere hizketaldian, ingelesetik italiarrera dabil priorea, baina hitzak ondo azpimarratu nahi ditu: “Saddam Hussein-en garaian aritu ziren ministro kristauak ego-



teak ere ez zigun mesederik egin, okerrerako izan zen”.

“Zer egin du Europak gu laguntzeko? Eta Erromak? Gure historiako momenturik okerranean, Europako agintari zibil eta erlijiosok ez dute fitsik egin”. Shabik argi dauka, Ekialdekoez aparte, beste kristaurik ez dela gelditzen munduan.

Irakeko mandear komunitateaz gain –hamarretik bederatzi hil dira edo ihes egin dute 2003an–, kristauak izan dira gehien sufritu dutenak. ACNUR-en datuen arabera, kristau konfesiodunen elkartea milioi bat ingurukoa zen orain hamar urte. Zifra hori erdira jaitsi da egun. “Ez gara arabiarrak, semitak gara. Arameoa hitz egiten dugu eta Hamurabiren garaietatik bizi gara Mesopotamian. Abraham eta Nabukodonosoren seme-alabak gara. 6.000 urteko historia luzea dugu baina etorkizuna bihar bertan buka liteke”.

Oinez hamar minutu behar dira gertuko beste eliza batera iristeko, Betiereko Laguntzaren Ama Birjina eliza. Aurrealde zuri, luze, abangoardistadun eliza da, inguruko eraikuntza lokatu eta monotonoen artean dotore. Kamuflaje grisez jantzitako soldaduek tenpluan sartu nahi duen oro miatzen dute goitik behera. Iazko eraberritze lanen ondotik orbangabe ageri da eraikuntza. Barruko bizipenak, baina, oso bestelakoak dira: “Bost ziren. Hormigoizko murruek gainetik salto egin eta tiroka hasi ziren elizan; ‘Ala handia da’ oihukatzen zuten. Irakeko Estatu Islamiarraren partaide zirela esan zuten (Al-Kaedari lotutako taldea). 2010eko urriaren 31n izan zen, mezetan geundela”. Aysur Said, oraingo

Ezker-eskuin: kristau ortodoxo bat bere tatuaiak erakusten; Imad Yokahna Yago, Asiriarrak Mugimendu Demokratikoko legebiltzarkidea Bagdaden; eta Shabi apezpikua Bagdadeko bere bulegoan.

erretorearen memorian, ahaztezin gelditu da gertaera tragikoa.

Komunitate honek 2003. urtetik pairatu duen atentatu ankerrenetakoa hil zen Aita Waseen ere, Saiden aurrekoa, beste 50 asasinaturen artean. “Batzuk tiropean hil ziren, itota besteak. Ondoko gela batean giltzaperratu zituzten eta, leihorik gabe, berehala ito ziren”.

“Pentsa –jarraitu du–, zuk, gaur hona sartzeko, hiru soldaduk zaindutako bi kontrolgune pasa behar izan dituzu, ezta? Bada, eraso gertatu zen egunean batere ez zegoen. Hauxe da Irak, hemen ez gara inorekin fio, are gutxiago polizierekin. Atentatuaz geroztik, Gobernuak baimena eman digu bigarren kontrolguneko soldaduek kristauak izan daitezten. Urteak dira eskaera hori egin genuela, baina 50 pertsona hil dira kasu egin diguten arte”.

Edengo lorategian

Sarraski haren ostean, Irakeko kristauak eskualde autonomoa eskatu zuten berehala Ninive inguruko lautadetan, herrialdeko ipar-mendebaldean. Bibliaren arabera, hortxe dago Edengo lorategia, baina gaur kurduak eta arabiarrek aldarrikatzen duten lur zatia da. Gainera, Mosul da bere hiriburu administratiboa, Saddam Husseinen bastioi historikoa eta, abendutik hona, Gobernuaren kontrako protesten eszenatoki bihurtu dena.

Mosul ezgonkorra gertu badago ere (30 bat kilometrorra baino ez), Baxika herrian lasaixeago daude, peshmerga soldadu kurduen hedatzea dela-eta. Biztanleria mistoa da bertan, jazidi, shabakh, kurdu eta kristauak bizi

“Mosul, Kirkuk edo Dora bezalako auzoetan genozidio sistematikoa gertatzen da, ez dira kasu isolatuak”, dio Yagok. Bazterkeriaren oinarrian konstituzioa bera dago



dira. Kristauen proiektu autonomistan barneratuta legoke herri hau ere.

“Irakiar guztien elkartasuna ezinbestekoa da” diosku Aita Danielek, Mart Shmouni eliza asiriarr ortodoxoaren arduradunak. 23 urteko gazteak ez du begi onez ikusten egitasmo autonomoa. Hala ere, aitortzen du elkartasun nazionalaren diskurtso ofiziala ere gero eta zailagoa dela. “Bagdadeko aginte berria ez da gu babesteko gai eta gure herria ihesean dabil. Aitzitik, azken hilabeteotan ugari dira Siriatic babes eske etorri diren familia kristauak. Arrapaladan atera eta asko ia ezer gabe iristen dira. Ez dira gutxi eskualde autonomo kurdurantz doazenak, segurtasun bila. Baxika bide erdiko geldiunea izaten da”.

Zalantzarik gabe, Kirkuk da egun arabiar eta kurduen auzogune nagusia. Bertan, Imad Yokhana Yago, Asiriarr Mugimendu Demokratikoko legebiltzarkideak atsekabez bizi du bere herriaren ihesaldi masiboa; kurdu, arabiar suni eta xiiten arteko gerraren mehatxuak sortutako ihesaldia hain zuzen.

“Mosul, Kirkuk edo Dora bezalako auzoetan (Bagdadeko hegoaldean) genozidio sistematikoa da gertatzen ari dena, ez dira kasu isolatuak” dio Yagok. Bazterkeriaren oinarrian konstituzioa bera dago, “Islama erlijio ofizialaren eta legediaren funtsa”. Gauzak horrela, diputatuak bere komunitatearen neurrirako egitasmoa aldarrikatzen du. “Niniven eskualde autonomo kristaua bageneuka, babesean biziko ginateke eta, gainera, liskarrean ari diren taldeen inguruko indargetzea ere sor lezake eskualdeak. Badakigu mingarria izango dela Basora, Bagdad eta Irakeko beste kristauak hara eramatea, baina horixe izan daiteke herrialdea utzi ez dezaten bide bakarra”.

Irakeko kristau adarrak

SEGURTASUN EGOERA gorria den arren, ez dira gutxi Irak barruan oraindik dauden kristautasunaren adarrak. Kaldearrek (“kaldani” arabieraz) osatzen dute handiena, 2003ko inbasioaren aurretik milioi erdi bat ziren –herrialde osoko kristau populazioaren ia erdia–. 1830ean Vatikanoko dogma onartu eta asiriarr elizatik eszisio gisa sortu zen. Edonola, latinaren ordez arameera –Jesukristoren hizkuntza– erabiltzen dute euren liturgian. Bigarren talde nagusia asiriarr eliza da, “nestoriarra” izenez ere ezaguna. Kristautasunaren adar zaharrenetakoa da eta Jesukristoren dualtasuna onartzen du: gizakiarena eta Jainkoarena –bakarra onartzen du katolizismoak–. Arameera ere erabiltzen dute liturgian. Kopuru urriagoak badituzte ere, Irakeko iparraldean komunitate siriako-ortodoxoak edo “jakobitak” topa daitezke, baita siriako-katolikoak ere. Bi adarrok monofisitak dira, hots Jesukristoren gizatasuna ukatzen dute.

Guk zergatik ez?

Dohuk-eko hiri kurduan, kanpandorreak bezain ugariak dira kristauak gobernaturako alkohol dendak. Jazidi kurduz gain, beraiek baino ezin dituzte edari alkoholduak saldu. Asiriarr Mugimendu Demokratikoko bulegoan, Yousif Eisho ordezkari politikoak asko eskertzen ditu bai eskualdeko segurtasuna, bai Gobernu Kurduarekin dituzten harremanak ere. Baina gehiago eskatzen du: “Argi dago irakiarrak garela, baina ez kurduak, ezta arabiarrek ere; asiriarrak gara, gure bizilagunengandik ezberdintzen gaituen hizkuntza eta historia daukagu. Oinarrizko eskubideak aldarrikatzen ditugu, hala nola hezkuntza gure hizkuntzan jaso ahal izatea. Gainera, kurduak eskualde autonomoa izateko eskubidea badute, guk zergatik ez?”.

Niniveko egitasmoa oso polemikoa da, eta asko beldur dira eskualdea ez ote litekeen herri honetarako ghetto moduko bat bihurtuko. Yousif Eisho ez dator bat: “Pairatzen ari garen jazarpena ez dator inoiz Irakeko arabiarrengandik. Iran, Saudi Arabia... Askok dira gure herriaren garbiketa etnikoan esku hartu dutenak. Kanpoko esku-sartze hori baimentzen den bitartean, ghettoa errealitate izango da”. ■

